Ayuntamiento de Garralda
Garraldako Udala
P3111400B
Arostegi plaza, 1 - 31693 Garralda
ayuntamiento@garralda.es
udala@garralda.es

Garraldako Udaletxeko Bilkura Aretoan, bi mila eta hogeita lauko ekainaren hemeretzian, arratsaldeko zazpietan, Udalbatzak bilkura arrunta egin du, lehenengo deialdian, indarrean dagoen arautegiak eskatutako gutxieneko partaideak elkartu direla. Bilkura alkate jaunak zuzendu du, jarraian adierazitako zinegotziak bertaratu dira eta idazkariaren aholkularitza izan dute. Honakoak izan dira EGUNEKO GAIAK:

Bildutakoak:

Alkate anderea: Begoña Munárriz Guezala

Zinegotzi jaunak: M. Andueza, M.J. Barberena, I. Iriarte. A.L. Mandacen.

**LEHENA.- AURREKO BILKUREN AKTAK ONESTEA.**

Irakurri dira bi mila eta hogeita lauko maiatzaren hamalauan eta hogeita hamarrean egindako bilkuren aktak; eragozpenik agertu ez baita, aho batez onetsita gelditu dira.

**BIGARRENA.- ALKATETZAK EMANDAKO EBAZPENEI BURUZ INFORMATZEA**

Jakinarazi da alkate andereak honako ebazpen hauek eman dituela:

- 21/2024 Ebazpena, ekainaren 7koa, Eduardo Arriola Juamperezi obra baimena ematen diona, Zakarloan duen habeartean hormigoia botatzeko.

Osoko Bilkura ebazpenen edukiaren jakinaren gainean gelditu da, eta adostasuna agertu dute.

**HIRUGARRENA.- 2024KO AURREKONTUAREN ALDAKETA HASIERA BATEZ ONESTEA, BIDEZKOA BADA**

- 1/2024 Aldaketa: kreditu berezia aldatzea, "frontoia trinket bihurtzea" izeneko obra egiteko.

Ikusirik, alde batetik, Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuko zuzendari gerenteak maiatzaren 30ean emandako 231E/2024 Ebazpena; ebazpen horren bidez, Garraldako Udalari 100.000 euroko gehieneko gastua egiteko baimena ematen zaio, kopuru bereko dirulaguntzakoa, frontoia trinket bihurtzeko eta dirulaguntza emateko oinarriak onartzen dira; eta, bestetik, Marcelino Eslava Garcia eta Manuel Alcalde Montes arkitektoek bidalitako aurrekontua, zeinetan aurreikusten da frontoia

trinket bihurtzeko obra gehi horrengatiko ordainsari teknikoak 108.138,69 euroko gastua eginen dutela.

Aldi berean, ikusirik Garraldako Udalak 2024ko ekitaldirako onartutako aurrekontu orokorra eta haren exekuzio oinarriak, beharrezkotzat jo da kreditu berezia gaitzeko aldaketa onartzea, 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoari eta haren 10. oinarrian aurrekontua betearazteari buruz ezarritakoari jarraikiz (oinarri horrek kreditu bereziak eta kreditu gehigarriak arautzen ditu). Honakoa dio:

*Kreditu bereziak eta gehigarriak honako baliabide hauetako batekin edo batzuekin finantzatuko dira:*

1. *Diruzaintzako gerakin likidoarekin.*
2. *Ekitaldian jasotzeko aurrikusitako diru-sarrera berriekin.*
3. *Aurrekontu arruntean aurreikusitako guztirakoen aldean egiazki bildutako diru-sarreren soberakinekin. Finantzaketa bide hori dagoela ulertuko da 1. kapitulu ekonomikotik 5.era bitarteko guztizkoari edo diru-sarreren aurrekontuko 6. kapitulutik 8.era bitarteko kontzepturen bati dagozkion diru-sarreren bilketa garbia kapitulu horietan edo kontzeptu horretan, hurrenez hurren, hasieran aurreikusitakoa baino handiagoa bada.*
   *Finantzaketa horren zenbatekoa dagokion gehikuntzaren zenbateko berekoa izanen da, kreditu-handitzeak finantzatzeko aurreikusten diren diru-sarrerak edo aurrekontuan kreditua sortu dutenak kendu ondoren.*
4. *Indarrean dagoen aurrekontuko konprometitu gabeko beste aurrekontu-aplikazio batzuetako kredituen baliogabetze edo bajekin, baldin eta haien zuzkidurak murrizgarritzat jotzen badira dagokien zerbitzuei eragotzi gabe.*

Azaldutakoagatik guztiagatik, zinegotzi jaun-andreek, aho batez, honako hau ERABAKI DUTE:

1. Hasiera batez onestea kreditu berezia gaitzeko aldaketa, aurrekontu osoaren gainean 110.000,00 eurokoa eta honako partida hauei eraginen diena:

   Gastuen partida:

   - 1 34200 6320000: Trinketeko obrak, 110.000,00 euro.

   Diru-sarreren partidak:

   - 7508005: Nafarroako Gobernuak Trinketeko dirulaguntza, 100.000,00 eurokoa.

   - 7820000: Auñamendi Pilota Eskola, 10.000 euro.

2. Erabaki hau jendaurrean jartzea hamabost egun naturaleko epean, auzotarrek edo interesdunek egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak edo alegazioak aurkez ditzaten.

-2/2024 Aldaketa: "Ikastetxeko teilatuko hegalak konpontzea" obra gauzatzeko diru-sarrerengatiko kredituen sorrera aldatzea.

Ikusirik 64E/2024 Ebazpena, maiatzaren 24koa, Langileriaren eta Azpiegituren zuzendari nagusiak emana, Udalari dirulaguntza ematen diona "ikastetxeko teilatuko hegalak konpontzeko" (% 95eko dirulaguntza, 25.041,51 eurokoa).

Aldi berean, ikusirik Garraldako Udalak 2024ko ekitaldirako onartutako aurrekontu orokorra eta haren exekuzio oinarriak, beharrezkotzat jo da sarrerengatiko kreditu-aldaketa bat onartzea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearekin bat etorriz eta aurrekontua betearazteko 13. oinarrian ezarritakoarekin bat etorriz. Oinarri horrek diru-sarreren ondoriozko kredituen sorrera arautzen du, eta honako hau ezartzen du:

*1.- Gastuen orrian kreditua sortu ahal izanen dute zergazkoak ez diren honako sarrera hauek:*

- *a) Pertsona fisiko edo juridikoen ekarpenak edo ekarpen konpromiso irmoak, tokiko eskumeneko gastuak finantzatzeko. Horretarako, diru-sarrera egin beharko da, edo, bestela, ekarpena emateko erabaki formala hartu beharko da espedientean.*
- *b) Udal ondasunak besterentzea; horretarako, eskubidea aitortu behar da.*
- *c) Maileguak itzultzea.*
- *d) Zerbitzuak ematea.*

*2.- Espedientean jasoko da kobrantzaren eraginkortasunaren justifikazioa edo konpromisoaren irmotasuna, baita handituko den aurrekontu-aplikazioa ere.*

*3.- Osoko Bilkurak onartu beharko du, eta, indarrean jartzeko, nahikoa izanen da osoko bilkuraren erabakia*

Azaldutakoagatik guztiagatik, zinegotzi jaun-andreek, aho batez, honako hau ERABAKI DUTE:

aurrekontu aldaketa onartzea, 9.041,51 euroko sarrera-kreditua sortzeko, aurrekontu aplikazio honetan:

Diru-sarreren partida:

- 1 7503001: G.N. eskola kontzentrazioko inbertsioa.

Partidaren hasierako aurreikuspena: 16.000 euro

Aldaketa: 9.041,051 euro

Partidaren behin betiko aurreikuspena: 25.041,51 euro

Gastuen partidak:

- 1 32320 6820000: Eskola-kontzentrazioko inbertsioa.

Partidaren hasierako aurreikuspena: 20.000 euro

Aldaketa: 9.041,051 euro

Partidaren behin betiko aurreikuspena: 29.041,51 euro

**LAUGARRENA.- ESKOLA-KONTZENTRAZIOKO OBRAK ESLEITZEA, BIDEZKOA BADA**

Langileriaren eta Azpiegituren zuzendari nagusiak abenduaren 28an emandako 197E/2023 Ebazpenaren bidez, Nafarroako toki entitateei (udalerri eta kontzejuei) dirulaguntzak emateko deialdia onartu zen, Haur Hezkuntzako 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan eta DBHko ikastetxe mistoetan hobekuntza eta birmoldaketa obren proiektuak gauzatzeko.

2024ko otsailaren 21an egindako osoko bilkuran, erabaki zen deialdira honako memoria hauek aurkeztea: "Ikastetxeko teilatu hegalak konpontzea", 26.359,48 euroko guztizko aurrekontua duena, eta "Eraikinera sartzeko kanpoko arrapala estaltzea", 17.837, 43 euroko guztizko aurrekontua duena, biak ere Álvaro Minondo Marugan arkitekto teknikoak idatziak.

Langileriaren eta Azpiegituren zuzendari nagusiak maiatzaren 24an emandako 64E/2024 Ebazpenaren bidez, Udalari dirulaguntza bat eman zitzaion "ikastetxeko teilatu hegalak konpontzeko" (% 95eko dirulaguntza, 25.041,51 eurokoa).

Carpintería Pedroarena SLri aurrekontua eskatu zaionez, eta zenbateko txikiko kontratua denez, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 81. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Osoko Bilkurak aho batez ERABAKI DU:

1. Carpintería Pedroarena S.L.ri esleitzea, munta txikiko kontratuetarako araubide bereziaren bidez, "ikastetxeko teilatu hegalak konpontzeko" obra kontratua, ezarritako gauzatze aurrekontuaren zenbatekoan, hots, 24.150,92 euro, BEZa barne (19.959,43 euro, BEZik gabe).

2. Carpintería Pedroarena SLri erabaki honen berri ematea, dagozkion ondorioetarako, eta deskribatutako obrak egiteko 5 hilabeteko epea duela adieraztea. Epe hori 2024ko azaroaren 15ean amaituko da, lehen aipatutako dirulaguntzen deialdiak hala eskatzen duelako.

**BOSGARRENA.- UDAL PLAN OROKORRAREN ALDAKETAK**

Udalbatzak egokitzat jo du Garraldako udal plan orokorreko hirigintza-araudi partikularreko punturen bat aldatzea; eta, horretarako, bidezkoa ikusi du teknikari eskudun batekin harremanetan jartzea, beharrezko txostenak egin eta idatz ditzan.

Bada, Oosoko Bilkurak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

1. Udalaren Plan Orokorra aldatzeko behar diren txostenak egiteko eta idazteko enkargua ematea Nafarroako Lurzoruaren eta Etxebizitzaren Agoizko bulegoko teknikariei.

2. Erabaki hau NASUVINSAri jakinaraztea, dagozkion ondorioetarako.

**SEIGARRENA.- ESKAERAK, INFORMAZIOAK, KOMUNIKAZIOAK ETA HAINBAT GAI**

**1.- Ion Iriarte Pedroarenaren eskaera**

2024ko ekainaren 4an, udal erregistroan jaso zen Pedro María Legarreta Nuin (NAN: 15.779.493-K) arkitekto teknikoaren eskabidea, Iriarterena (katastroko 2. poligonoko 114 zenbakidun partzelako etxebizitza; posta-helbidea: Soroaldea 140, 31693 GARRALDA) eraberritzeko proiektuaren egilea, eta Ion Iriarte Pedroarena jabearen izenean (NAN/IFZ: 44.610.503-W; helbidea: Soroaldea 13) aritu dena.0

Instantzia horretan adierazten denez, Katastroko 2. Poligonoko 113 lur zatian (Posta helbidea: Mendizubia, 112) dagoen etxebizitza (NESKEN ESKOLA) Garraldako Udalaren jabetzakoa, aipaturiko Iriarterenaren NE fatxadarekin mugakidea dela, eta Nafarroako Gobernuko Etxebizitza Zerbitzuak argi eta bisten eskubideak egiaztatzeko eskatu die, 5/2006 Foru Dekretuaren, urtarrilaren 30ekoa, 1. Eranskineko 19.1 artikuluan adierazitakoak eta 42/2004 Foru Dekretuak, martxoaren 22koa, aldatzen dituena.

Aurrekoa kontuan izanda, Garraldako Udalari baimena eskatu dio, aldameneko etxebizitzaren jabea den aldetik, Iriarterena eraberritzeko proiektuan proposatutako bao berriak egiteko. Lau bao egin nahi dira, honako neurri honetakoak: 90 x 124 cm-ko, guztira 4,46 m2-ko bao azalera egiten dutenak.

Adierazitako ikusirik, Udalbatzak aho batez ERABAKI DU:

1) Iriarterenaren mugakide den Mendizubia kaleko 112. zenbakian dagoen eraikinaren jabe gisa, proposatutako bao berriak egiteko baimena ematea.
2) Erabaki hau interesdunei jakinaraztea, dagozkion ondorioetarako.

**2.- Barberena**

Garraldako Udalaren jabetzako Mendizubia kaleko 112. zenbakian dagoen higiezina ("Barberena" edo "Nesken Eskola" izenez ezagutzen dena) Jabetza Erregistroan inskribatzeko espedientea dela eta, korporazioari jakinarazi zitzaion, Agoizko Jabetza Erregistroan inskribatzen saiatu zela, baina duela gutxi jakinarazi zitzaiola idazkaritza honi, herentzia onartzeko eskriturarik ez dagoenez, ezin dela inskribatu.

Beraz, ezinbestekoa da traktuari berriro ekiteko espediente bat hastea, notario baliodun batekin izapidetu behar dena.

Horrenbestez, Osoko Bilkurak aho batez ERABAKI DU:

1. Traktuari berriro ekiteko espedientea izapidetzen hastea Agoizko notariotzan, finka dagoen notario-barrutian jarduteko notariotza balioduna baita.
2. Erabaki hau Agoizko notariotzari jakinaraztea, dagozkion ondorioetarako.

**ZAZPIGARRENA.- FAKTURAK**

Azken Osoko Bilkura egin zenetik ona ordaindutakoen berri eman da, baita aldi berean izandako diru-sarrerena ere. Udalbatza jakinaren gainean jarri da, eta ordainketekin eta kobrantzekin ados dagoela adierazi du.

Era berean, Osoko Bilkurari jakinarazi zaio David Conde Oncok 2020ko uztailaren 15ean emandako 4. faktura, "udaletxearen eraikinaren fatxada egokitzeagatik" egindakoa, aitortu gabe dagoela. Era berean, interesdunak udalarekin zorra du.

Horrekin lotuta, Osoko Bilkurak aho batez ERABAKI DU:

1. Goian adierazitako faktura onartzea eta 2024ko aurrekontuan gastu gisa aintzatestea.
2. Aldi berean, interesatuak udalarekin duen zorra aitortzea.
3. Erabaki hau interesdunari jakinaraztea, dagozkion ondorioetarako.

**ZORTZIGARRENA.- GALDERAK ETA ESKEAK**

Ez da galde-eskerik egin.

Eta aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, bilkura bukatutzat eman da goian adierazitako eguneko gaueko hamarrak zirela. Errandakoa jasotzeko akta hau luzatu da, adostasuna agertzeko bertaratutako jaun-andereek sinatu eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.

**Ayuntamiento de Garralda**
**Garraldako Udala**
P3111400B
Arostegi plaza, 1 - 31693 Garralda
ayuntamiento@garralda.es
udala@garralda.es

En la Sala Consistorial del Ayuntamiento de GARRALDA, siendo las diecinueve horas del día diecinueve de junio de dos mil veinticuatro, se reúne la Corporación Municipal en sesión ordinaria, en primera convocatoria, con el quórum exigido por las disposiciones vigentes, bajo la Presidencia de la Sra. Alcaldesa, con la presencia de los Concejales que se especifican a continuación, asistidos por la Secretaria, Tratándose los siguientes puntos del ORDEN DEL DÍA:

Asistentes:

Sra. Alcaldesa: Begoña Munárriz Guezala

Sres. Concejales: M. Andueza, M.J. Barberena, I. Iriarte. A.L. Mandacen.

**PRIMERO.- APROBACIÓN ACTAS SESIONES ANTERIORES**

Se da lectura a las actas correspondientes a las sesiones celebradas los días catorce y treinta de mayo de dos mil veinticuatro; no habiendo objeciones, se aprueban por unanimidad.

**SEGUNDO.- INFORMACIÓN SOBRE RESOLUCIONES DE ALCALDÍA**

Se informa al Pleno de las siguientes Resoluciones:

- R 21/2024 de 07 de junio, por la que se concede licencia de obras a Eduardo Arriola Juamperez para hormigonado en Nave Ganadera en Zakarloa.

El Pleno se da por enterado del contenido de las Resoluciones, manifestando su conformidad.

**TERCERO.- APROBACIÓN INICIAL EN SU CASO DE MODIFICACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2024**

- Modificación 1/2024: modificación de crédito extraordinario para ejecutar la obra “reconversión del frontón en trinquete”.

Vista, por un lado, Resolución 231E/2024, de 30 de mayo, del Director Gerente del Instituto Navarro del Deporte y de la Actividad Física, por la que se autoriza un gasto máximo de 100.000 euros para la concesión al Ayuntamiento de Garralda, de una subvención por el referido importe, para la reconversión del frontón en trinquete y se aprueban las bases reguladoras mediante las que

se instrumenta la subvención y, por otro lado, presupuesto que remiten los Arquitectos Marcelino Eslava Garcia y Manuel Alcalde Montes en el que se estima que el importe de ejecución de la obra de reconversión del Frontón en Trinquete más los honorarios técnicos ascienda a 108.138,69 euros.

Visto, al mismo tiempo, el presupuesto general aprobado por el Ayuntamiento de Garralda para el ejercicio 2024, junto con sus bases de ejecución, se estima necesario aprobar una modificación de crédito extraordinario conforme a la Ley Foral 2/1995, de 10 de marzo, de Haciendas Locales de Navarra y conforme a lo establecido en la Base 10 de ejecución del presupuesto, que regula los créditos extraordinarios y los suplementos de crédito y que establece lo siguiente:

1. *Los créditos extraordinarios y los suplementos se financiarán con uno o varios de los recursos siguientes:*

a) *Remanente líquido de Tesorería*
b) *Con nuevos ingresos que se prevea recibir en el ejercicio*
c) *Con mayores ingresos efectivamente recaudados sobre los totales previstos en el Presupuesto corriente. Se entenderá que existe dicha financiación cuando la recaudación neta de los ingresos correspondientes al global de los capítulos económicos 1 al 5 o a algún concepto de los capítulos 6 a 8 del presupuesto de ingresos sea superior a las previsiones iniciales de dichos capítulos o en dicho concepto, respectivamente.*
*Dicha financiación se cuantificará en el importe del correspondiente incremento una vez deducidos los ingresos que se contemplan para financiar ampliaciones de crédito o que hayan generado crédito en el presupuesto.*
d) *Anulaciones o bajas de créditos de otras aplicaciones presupuestarias del presupuesto vigente no comprometidas, cuyas dotaciones se estimen reducibles sin perturbación del respectivo servicio.*

En virtud de lo expuesto, por unanimidad de los/as Sres./Sras. Concejales/as, SE ACUERDA:

1. Aprobar inicialmente la modificación de crédito extraordinario por importe de 110.000,00 euros sobre el total presupuestado, concretamente sobre las siguientes partidas:

   Partida Gastos:

   - 1 34200 6320000: Obras Trinquete, por importe de 110.000,00 euros

   Partidas Ingresos:

   - 7508005: Gobierno de Navarra subvención Trinquete, por importe de 100.000,00 euros

- 7820000: Escuela de Pelota Auñamendi, por importe de 10.000 euros

2. Someter este acuerdo a exposición pública en el tablón de anuncios de la Corporación por un plazo de quince días naturales con el fin de que los vecinos o interesados puedan presentar las reclamaciones o alegaciones que estimen oportunas.

- Modificación 2/2024: modificación de generación de créditos por ingresos para ejecutar la obra de "Reparación de aleros en tejado en centro educativo".

Vista Resolución 64E/2024, de 24 de mayo, de la Directora General de Personal e Infraestructuras, por la que se concede al Ayuntamiento una subvención para la "reparación de aleros en tejado en centro educativo", con la subvención de 95 %, por importe de 25.041,51 euros.

Visto, al mismo tiempo, el presupuesto general aprobado por el Ayuntamiento de Garralda para el ejercicio 2024, junto con sus bases de ejecución, se estima necesario aprobar una modificación de crédito por ingresos conforme a la Ley Foral 2/1995, de 10 de marzo, de Haciendas Locales de Navarra y conforme a lo establecido en la Base 13 de ejecución del presupuesto, que regula la generación de créditos por ingresos y que establece lo siguiente:

1. *Podrán generar crédito en el estado de gastos los siguientes ingresos de naturaleza no tributaria:*

*a) Aportaciones o compromisos firmes de aportación de personas físicas o jurídicas para financiar gastos de competencia local. Para ello será preciso que se haya producido el ingreso o, en su defecto, que obre en el expediente acuerdo formal de conceder la aportación.*
*b) Enajenación de bienes municipales, siendo preciso que se haya procedido al reconocimiento del derecho.*
*c) Reembolso de préstamos.*
*d) Prestación de servicios.*

2. *El expediente incluirá la justificación de la efectividad del cobro o la firmeza del compromiso, así como la aplicación presupuestaria que va a ser incrementada.*
3. *La aprobación del mismo corresponderá al Pleno, para su entrada en vigor será suficiente el acuerdo del Pleno.*

En virtud de lo expuesto, por unanimidad de los/as Sres. /Sras. Concejales/as, SE ACUERDA:

Aprobar la modificación presupuestaria de generación de crédito por ingreso por importe de 9.041,51 euros en la siguiente aplicación presupuestaria:

Partida Ingresos:

- 1 7503001: G.N.  inversión concentración escolar.

Previsión inicial partida: 16.000 euros

Modificación: 9.041,051 euros

Previsión definitiva partida: 25.041,51 euros

Partidas Gastos:

- 1 32320 6820000: Inversión concentración escolar.

Previsión inicial partida: 20.000 euros

Modificación: 9.041,051 euros

Previsión definitiva partida: 29.041,51 euros

**CUARTO.- ADJUDICACIÓN, EN SU CASO, DE OBRAS EN LA CONCENTRACIÓN ESCOLAR**

Por Resolución 197E/2023, de 28 de diciembre, de la Directora General de Personal e Infraestructuras, se aprobó la convocatoria de subvenciones a entidades locales (municipios y concejos) de Navarra para la ejecución de proyectos de obras de mejora y remodelación, de centros públicos de 2º Ciclo de Educación Infantil y Educación Primaria y mixtos de Primaria-ESO.

En sesión plenaria  de 21 de febrero de 2024 se acordó presentar a la convocatoria publicada las Memorias valoradas de "Reparación de aleros en tejado en centro educativo", con un presupuesto total de 26.359,48 euros y la de "Cubrición de rampa existente exterior para acceso al edificio", con un presupuesto total de17.837, 43 euros, ambas redactadas por el arquitecto técnico Álvaro Minondo Marugan.

Por Resolución 64E/2024, de 24 de mayo, de la Directora General de Personal e Infraestructuras, se concede al Ayuntamiento una subvención para la "reparación de aleros en tejado en centro educativo", con la subvención del 95 %, por importe de 25.041,51 euros.

Habiendo solicitado presupuesto a Carpintería Pedroarena S.L., y al tratarse de un contrato de menor cuantía, de conformidad con lo establecido en el artículo 81 de la Ley Foral 2/2018, de 13 de abril, de Contratos Públicos, por unanimidad del Pleno SE ACUERDA:

3. Adjudicar a Carpintería Pedroarena S.L., mediante régimen especial para contratos de menor cuantía, el contrato de obras para la "reparación de aleros en tejado en centro educativo" por el importe del presupuesto de ejecución establecido, que asciende a 24.150,92 euros IVA incluido (19.959,43 euros IVA excluido).

4. Comunicar el presente acuerdo a Carpintería Pedroarena S.L., a los efectos oportunos, señalando que dispone de un plazo de ejecución

de las obras descritas de 5 meses, finalizando el día 15 de noviembre de 2024, por exigencia de la convocatoria de subvención mencionada con anterioridad.

**QUINTO.- MODIFICACIONES DEL PLAN GENERAL MUNICIPAL**

La Corporación estima oportuno modificar algún punto de la normativa urbanística particular del plan general municipal de Garralda y para ello, entiende conveniente contactar con un técnico competente para la elaboración y redacción de los informes necesarios.

En este sentido, el pleno por unanimidad, ACUERDA:

1. Encargar a los técnicos de la oficina de Aoiz de Navarra de Suelo y Vivienda, S.A., la elaboración y redacción de los informes que sean necesarios para la modificación del Plan General Municipal.

2. Comunicar el presente acuerdo a NASUVINSA a los efectos oportunos.

**SEXTO.- SOLICITUDES, INFORMACIONES, COMUNICACIONES Y TEMAS VARIOS**

**1.- Solicitud Ion Iriarte Pedroarena**

Con fecha 4 de junio de 2024 se recibe en el registro municipal instancia del arquitecto técnico Pedro María Legarreta Nuin, con DNI 15.779.493-K, autor del Proyecto para reforma interior de Vivienda en casa Iriarte, Parcela Catastral 114, Polígono 2, dirección Postal, Soroaldea 140, 31693 GARRALDA, actuando en representación de su propietario Ion Iriarte Pedroarena, con DNI/NIF 44.610.503-W y domicilio en Soroaldea 13.

En dicha instancia se indica que la vivienda sita en la Parcela Catastral 113, Polígono 2, correspondiente con la Dirección Postal Mendizubia 112, NESKEN ESKOLA, propiedad del Ayuntamiento de Garralda, es colindante por la fachada NE con la anteriormente referida casa Iriarte y que desde el Servicio de Vivienda del Gobierno de Navarra se les ha requerido acreditar los derechos de luces y vistas a los que se refiere el artículo 19.1 del Anexo 1 del DF 5/2006 de 30 de enero, que modifica el DF 142/2004 de 22 de marzo.

En ese sentido, solicita autorización del Ayuntamiento de Garralda, en su condición de propietario de la vivienda colindante indicada, para la realización de los nuevos huecos propuestos en el Proyecto de Rehabilitación de casa Iriarte, que son los siguientes: 4 huecos de dimensiones 90 x 124 cm. con una superficie total de huecos de 4,46 m2.

Visto lo anterior, por unanimidad del Pleno SE ACUERDA:

1) Autorizar, en calidad de propietarios del edificio sito en C/Mendizubia 112, colindante con casa Iriarte, la realización de los nuevos huecos propuestos.

2) Notificar el presente acuerdo a los interesados a los efectos oportunos.

**2.- Casa Barberena**

Se informa a la corporación, en relación al expediente de inscripción en el Registro de la Propiedad del inmueble situado en C/Mendizubia 112, propiedad del Ayuntamiento de Garralda, conocido como “Casa Barberena” o “Escuela de Chicas”, que tras haber intentado inscribirlo en el Registro de la Propiedad de Aoiz, recientemente se comunicó a esta secretaría que, a falta de una escritura de aceptación de herencia, no es posible inscribir la misma.

Por lo tanto, resulta imprescindible iniciar un expediente de reanudación de tracto, expediente que ha de tramitarse ante notario hábil.

En este sentido, por unanimidad del Pleno SE ACUERDA:

1. Iniciar la tramitación del referido expediente de reanudación de tracto ante la Notaría de Aoiz, como Notaría hábil para actuar en el distrito notarial donde radica la finca.

2. Comunicar el presente acuerdo a la Notaría de Aoiz a los efectos oportunos.

**SÉPTIMO.- FACTURAS**

Se informan de las pagadas desde la celebración del último Pleno, así como de los ingresos obtenidos en el mismo período, dándose la Corporación por enterada y manifestando su conformidad con los pagos y los cobros.

Al mismo tiempo, se informa al Pleno de que la factura nº 4, de 15 de julio de 2020 emitida por David Conde Onco por “acondicionamiento de fachada del edificio del ayuntamiento” está sin reconocer. Igualmente, resulta que el interesado tiene deuda pendiente con el ayuntamiento.

En este sentido, por unanimidad del Pleno, SE ACUERDA:

1. Aprobar la factura arriba indicada y reconocerla como gasto en el presupuesto de 2024.

2. Reconocer, al mismo tiempo, la deuda que el interesado tiene pendiente con el Ayuntamiento.

3. Comunicar el presente acuerdo al interesado a los efectos oportunos.

**OCTAVO.- RUEGOS Y PREGUNTAS**

No se producen

Y no habiendo más asuntos a tratar, se levanta la sesión siendo las veintidós horas del día arriba indicado, de la que se extiende la presente, que

en prueba de conformidad firman los Sres. Asistentes y que yo, la Secretaria, certifico.